

XI. mende hasierako espainiar demokraziaren osasuna aztertze, Kataluniaren banakuntza saihestu nahian egindako askatasunen urraketa goranzkoen katalogorik gabe, aldi berean gertatutako kasu txikiago batera ere jo daiteke, tenperatura neurtzeko berdin balio baitu eta berdin baita esanguratsua: Erdoganek estraditatzeko eskatu dituen bi disidente turkiar, biak Europar erbesteratuak, biak kazetariak, biak egin dituzten salaketengatik Turkiako gobernuak terroristak-edo direlakoan jazarriak, atxilo mantentzen ditu Rajoyren gobernuak (haisetako bat zuzenean kartzelan; bestea, baldintzapeko askatasunean). Europak du begira. Seguruena bere burua lasaituko du esanez legeak esandakoa betetzen ari dela bere artean esanda eta ez-ulertuarena eginda bestela jokatzeke deiei. Demokrazia formalaren miresle da Rajoy jabetzaaren erregistratzailea, politikara deus alda ez dadin sartzen direnetarikoa. Nork sinetsaraziko dio Interpolen estradizio agindu bat betetzean *de facto* ekintza antidemokratiko bat babesten ari dela? Autoritarismoan (legalista beti) goxoago dago. Izaeran darama.



JIRA
Angel Erro

Seguruena espero du berez konpontzea Espainiaren funtsa agerian uzten duen arazoa. Bi atxilotuak Kataluniara eramatea bururatu zaio sinetsita nago.

Seguruena espero du berez konpontzea Espainiaren funtsa agerian uzten duen arazoa. Bi atxilotuak Kataluniara eramatea bururatu zaio sinetsita nago.

Jende indartsua

Indarra edukitzea eta indartsua izatea ez da gauza bera. Indarra duen jendeak ibiltariak bultzaka apartatuz zabaltzen du bidea; jende indartsua altxatu egiten da inork bultzatzen ez duen lurrera erortzen denean. Indarra duen jendea oiltatu egiten da taldean, ordea, bakarrean harrapatu eta begietara begiratzen badiozu, dar-dar egiten diote belaunek;



BIRA
Miren Amuriza

jende indartsua hazi egiten da taldean eta begiratzen dizunean, bakarrean egon zein ez, bibratu arazi egiten dizu. Indarra duen jendeak pisu handiko gauzak ibiltzen ditu, adibidez, 50 tonako tankeak edo 2 kiloko kaskoak; jende indartsua ohiko arroparekin, adibidez, ostegunetakorekin, ibiltzen da beti, gerran ere bai. Indarra duen jendea arineketan hasten da, porrak eskuetan; jende indartsuak lurrean eseri eta besotik heltzen dio elkarri. Indarra duen jendeak ehunka, milaka polizia bidaltzen ditu hor zehar barku garestietan sartuta; jende indartsuak lorez estaltzen ditu ibilgailu poliziaalak. Indarra duen jendea jende azpigaratua da, hainbeste trebatzen da indarra erabiltzen, ezen besotelako gaitasunak neutralizatu egiten baitzaizkio; jende indartsua garatuagoa, indarra gutxitan baliatzen duenez, landuago ditu, adibidez, mintzamen eta entzumena. Indarra duen jendeak etxean negar egiten du, beti bakardadean; jende indartsuak ere bai, batzuetan bakardadean. Indarra duen jendeak boterea dauka; jende indartsuak ahalmena.

Biktimen politikak: balantzze kritikoa

Jon M. Landa
Giza Eskubideen eta Botere Publikoaren Katedraren zuzendaria

Espainian biktimen politikak ETaren itzalpean piztu ziren. ETAko biktimen politikak, indarrez, 1999. urtean estreinatu ziren, terrorismo biktimekiko elkartasun lege baten bitartez (32/1999 Legea, urriaren 8koa). Une horretara arte Espainiako Konstituzioa onartuz geroztik (1978) jada 20 urte baino gehiago pasatuak izan arren, eta ETA jardunean 30 urte (1968-1999) igaro ondoren, ETaren biktimak «ahaztuta» egon ziren, aitortpenaren neurgailu gisa legea existitza ala ez hartuko bagenu. Askotan Euskadiren gizarte-ari edota bere erakundeei biktimok ahaztuta edukitzea leporatu arren, egia da, ordea, Espainia osoan ere aitortpen juridikorik eza nabaria zela.

1999. urteko aurrera, hortaz, gauzak nabarmen aldatu ziren, eta neurri handi batean hoberrak; izan ere, terrorismoaren ondoriozko biktimak beharrezkoak zirela: prestazio ekonomiko, medikuntza edo lan-erlokoak behar-beharrezko baitzizuten, beraien bizitza -ahal zen neurrian- berbideratzekotan. Espainiako Gorteek bultzatutako legea aipatutakoa asetzera zuzentzen zen, ondo zuzenduta zalantzarik gabe, bai eta horren segidan etorriko ziren beste antzeko arau autonomikoak ere. Nork ukatuko du gaur hori egin behar zenik?

Biktimak atenditu behar ziren tudarik gabe. Baina nola? Hor zegoen, eta badago, koxka. Aitortpen eta prestazio pertsonalaz haratago «aitortpen kolektiboan» eta biktimen politika «asimetrikoan» (bakarrik biktimok gainerako guztiak alboraturik) arazoa, eztabaidagunea eta kritika koka-tzen dira. ETak sortutako biktimen aitortpen kolektiboaren aitzakiaz terrorismoaren interpretazio jakin bat ofizialdu nahi izan zen: interpretazio alde batekoa -ez baketsua- eta nazioarteko estandarretatik begiratu eta-ohikoa. Goazen zatika.

Interpretazio alde batekoa, zeren eta terrorismoa ez baitzen antolatutako delitugintza gisa tratatzen. Terrorismoa nazioarteko delituriak larrienekin parekatu zen, genozidio edota gizateriaren kontrako krimena bailitza. Eta horrek bere ondorioak zituen ikuspegi politikotik: alegia, nazioarteko krimen nagusiak ia beti estatuek egiten dituztenez gero, kasuotan Estatuaren erantzukizuna aztertzen da eta aldi berean gizarte osoaren «erantzukizuna edo kulpa kolektiboa». Genozidio bat dagoenean hainbestearinokoa da krimenen tamaina, ezen ezin izaten baita aurrera eraman estatuko aparatuek ez badaude horretan inplikaturik, eta horrek dakar gizarteak berak ere delitu ikaragarritan, egitez edo ez-egitez, ere parte hartu ohi duela.

Terrorismoa nazioarteko krimenekin parekatzerakoan, Euskadin abertzaletasuna erruduntzat joa izan zen: abertzaleek -denek- bultzatzen omen dute terrorismoa, bere atzean dagoen ideologia, terrorismotik ateratzen diren «fruituak» jasotzen dituelarik. Terrorismoaren aurkako borroka ideologia abertzalearen aurkako borroka intelektual, politikoa, juridikoa, bai eta instituzionala ere (Eusko Jaurjaritzaren aurkako...) bilakatu zen. Europar Holokaustoarekin gertatu antzera, euskal gizarteak bere burua aztertu eta egindako «bekatua» aitortu behar omen zuen, ideologia bera (autodeterminazioa kasu) ere alde batera uzte-raino.

Baina terrorismoa ez da holokaustoa. Euskadin, Nafarroan eta Iparraldean 1968tik 2011 arte gertatutakoa ez da holokaustoa, eta ez da zuzenbide penaleko gizateriaren aurkako delituri-rik ezta genozidiorik egon. Biktimen legeak, ordea, ezohiko nazioarteko krimenen estandarrek bultzatu zituen, ETA ez ezik, euskal erakundeak

eta gizarte bera ere errudun omen zelarik. Denok bagenuen zorra biktimikoa: ETaren biktimekiko; ez beste estatu-terrorismo biktimekiko; ez torturen biktimekiko...

ETAren biktimekiko politikak Espainian zegoen iraganari buruzko isiltasunaren lekua bete zuen. Diktadura ankerrak, guda zibilaren nazioarteko krimenak, Estatu errepresioa, isilpean joan zen trantsizioa, bai eta trantsizio eta geroko giza eskubideen urraketen kasuan ere. Holokausto antzekoa zen hura (Paul Prestonek hitz egiten du Espainiako Holokaustoaz!) ez zen aitortzen; memoria-lege oso ahula onartu zen azkenik (2007), egia argitzen ez zuena; justiziarik egiten ez zuena; erreparazio pribatua -publikoa baino- zatika besterik egiten ez zuena. Benetako biktimen politikak egin behar ziren gaitan ez dira egin; benetan memoria-politika egin behar zen hortan ez da egin; benetan azterketa eta irauli instituzional eta soziala egin behar zen horretan ez zen egin.

ETAren biktimen legea eta horren inguruko diskurtsoak lekua bete zuten, eta aitzakia bilakatu da Espainiako iragana «beste era batera» begiratzeko. Tony Judt historialari handiak dio Europar «sartzeko», alegia, Europako balio-elkartekoa izan eta aitortua izateko, holokaustoa ere aitortu beharra dagoela eta handik aurrera solairu etiko gutxienekoa dugula Estatu demokratikoa eraiki eta sakontzeko. Asimetria zilegitasunez onartzen bada, horretan -holokaustoaren biktimgan- izan beharko. Espainian, bere benetako holokaustoaren kontrako itun etikoa sortu beharrean, begirada desbideratu egin da. Eta horrek demokraziaren ituna eta horren kultura zauriturik utzi du. Ahalik eta Estatu espainiarrak egin dituen nazioarteko krimenak, guda krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak behar bezala aitortu, eta horren ondorioz politika publikoetan jardun arte, demokraziak ez du jator aurrera egingo, ez bada hankak lotuta daramatzen korrikalari bat bezala. Eta horrek ez lieke terrorismoaren biktimei inongo kalterik egin behar. Batak ez dio bes-teari kalterik egingo. Bakoitzari berea: biktimen politika guztiak guztiz eta indarrez baina hierarkia faltsurik gabe. Asimetria terrorismoaren gaitan, Estatu makrokriminalitateak kanpo utziz ez da izan zilegia: gaur ere ez.

ETAren biktimekiko politikak Espainian zegoen iraganari buruzko isiltasunaren lekua bete zuen